



# Kukukaren X. urteurren ospakizunak

Ibarrako Alurr dantza taldeak "Izanak dirau, 1512" ikuskizuna eskaini zuen estrainekez

Hamar urte bete ditu Kukuka herriko dantza eta antzerki eskolak. Hamarkada honetan egindako lan eskergea eta lorpenak ospatu asmoz, larunbat arratsaldean "Izanak dirau, 1512" ikuskizuna eskaini zuen Ibarrako Alurr gazteen dantza taldeak. Jende ugari bertaratu zen duela 500 urteko Nafarroan girotutako dantza emanaldiaz gozatze-  
ra eta bide batez, Kukukak egindako lana txalotzera.

**L**an ete lan aritu dira azken hamar urteotan Kukuka dantza eta antzerki eskolako kideak herriari barre algarak eragin edota denetarioko emozioak sorraraziz. Ameslari eta amets eragile izan dira aldi berean.

Hamarkada honetan egindako lana ospatu asmoz, Ibarrako Alurr dantza taldeko lagunak gonbidatu zituzten herritarren aurrean "Izanak dirau, 1512" ikuskizuna kultur-etxean estrainekoz aurkez zezaten.

## Ikuskizun berezia

Nafarroako erreinu zaharrera bidaiatu zuten kultur-etxera bertaratu ziren lagunak. Edo hobekiago esanda, hara bialti zituzten Aiert Beobide zuzen-

dariaren esanetara aritu ziren neska dantzari gazteek.

Duela 500 urteko testu-  
guruan interpretatu zuten sin-  
bolismoz betetako obra. Bikain aritu ziren oholtzaratu ziren neska gazteak eta amaitzean ondo merezitako txalo zaparrada jaso zuten.

"Izanak dirau, 1512" iraganari egindako gorazarrea izan zen, Nafarroako erreinua eta haren izana aldarrikatzen dituen ikuskizuna. Iraganik gabeko herriak etorkizunik ez duela aldarrikatu nahi izan zuten larunbateko emanaldia-  
ren bitartez.

## Urteurreneko ekintzak

Baina ez da hau Kukukaren X. urteurreneko ospakizunen



Ikuskizun polita eskaini zuten Alurr dantza taldeko neska gazteek eta jendeak txalo zaparrada luze batekin agurtu zituen.

barruan hilabete honetan egingo den ekintza bakarra izango.

Apirilerako beste bi ekintza daude prestatuta. Bihar, apirilaren 17an, Julia Marinek antzerki klase ireki bat eskainiko du Manuel Lekuonako areto nagusian. Kukukakoen

hitzetan, Julia Marin herritarra esperientzia handiko pertsona da antzerki munduan.

Klase irekiari dagokinez, sorkuntza lantzeko hainbat ariketa egingo dituztela aipatu dute eta saio honetara antzerki zaletu gazte zein helduak gonbidatuta daudela azpima-

rratu nahi izan dute.

Bestalde, apirilaren 25ean, asteazkenez, Kukai dantza taldeko kideek entsegu irekia egingo dute. "Azken urteetako koreografiaren erakusketa izango da", azaldu du Maider Oiartzabal Kukukako dantza irakasleak.

## 4-5 ERREPORTAJEA

### Lasarteoriarrek Alkizan egindako txakolina

Xabier Urruzola eta Garazi Del Rey herritarrek Inazio Urruzola markako lehen txakolin botilak merkaturatu dituzte. Herriko Jalgi kafe antzokian dago hau dastatzeko aukera. Bikotea pozik dago lortutako emaitzakin eta hurrengo uzta oparagoa izatea espero dute.



## 6 KIROLA

### Maialen Chourraut Londreseko Joko Olinpikoetan

Maialen Chourraut lasarteoriarrek bere bigarren Joko Olinpikoetarako txartela eskuratu du. Espainiako selekzioak Pauen egindako hautaketa probetan bere nagusitasuna erakutsi zuen, saio guztiak garaituz. Uztailean Londreseko kanalean nazioarteko palisa hobere-  
renen aurka lehiatuko da.

## 6 KIROLA

### Buruntzaldea-ko igerilariek trebezia erakutsi zuten

Itsaso Tolosa gaztea Estatuko Open txapelketan izan zen. Emaitza ona lortu ez arren, hogeitigarren izan zen, etorkizunera lanean ari direla aipatu du bere entrenatzaileak. Bestalde, taldeko txikiak Ligako 4. jardunaldian haien trebezia erakutsi eta hainbat probatan lehenengo postuetan izan ziren.

## Bideo Lagunak



Betiko zerbitzua  
gure aholkularitza  
onenarekin

**UDABERRIKO ESKAINTZAK  
BEGIRATU!**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



ALBA  
ARROPA DENDA

KOOKAI  
NAFNAP  
VERSE



Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 574450

## Adituak dio



**Pilar Garcia**  
Orbela Osasun Zentroa

## Udaberria

**D**uela gutxi udaberriaren esnatzea bizitzeko gozame-na izan dugu. Nola eragiten digu gorputz fisiko, mental eta emozionalean udaberriak? Esaten den bezala "la primavera la sangre altera" eta hau da funtsean gertatzen zaiguna. Organismoa asaldaten da. Eguna luzatu eta eguzki gehiago izatean, hormonen produkzioa aldatzen da. Hilabeteotan melatonina, serotonina edo feromona bezalako hormonen kopurua igotzen da. Horregatik energia gehiagorekin, alaiago sentitzen gara.

Sendaketa egiteko momentu ona da, neguan pilatutako toxikotasuna garbitzeko. Garai honetan gibela eta besikulak garrantzia hartzen dute eta hauek deskargatzen eta garbitzen lagunduko duen gutzia eskertuko du organismoak. Osasuna udaberriari babesteko, elikadura osasuntsua, barazki eta frutaz osatutako dieta egitea oinarritzakoa da. Onak dira alkatxofa, astalikardua, txikoria-belarra, negakina, belar dendetan aurki daitezkeen bolboa, desmodiuma. Garagarra moduko zerealak, arroza integrala eta oloak gibela hustu eta beharrezko energia emango digute. Frutak jan, salda edo infusio bidezko egun bateko baraua egitea gomendagarria da ere. Saihestu beharreakoak hestebe-teak, frijituak, azukrea, esnekiak eta gehiegizko animalien proteinak. Proteina begetalei lehentasuna eman beti.

Udaberriarekin lotutako sintomak dituzula nabaritzekotan, udaberriko depresioa adibidez, ez beldurtu. Ohikoa da urtaroraen lehen asteetan goibel sentitzea. Honetarako bitamina batzuk hartu ditzakegu indarrak berreskuratzeko. Alergientzat orain arteko guztiak laguntzen du gehien, helikrisoa, kurkuma, txikoria-belarra bezalakoak onak dira.

Gorputza ondo bada, bizitzea eta sentitzea errazagoa da. Zoriontsu bizitzea ez da bakarrik eskubidea betebeharra baizik. Disfrutatu!

## Udaberriaren bor-borra

**U**daberriaren odola berotzen omen zaigu. Udarako usaina hartzen dugu nonbait eta giroa aldatzen da etxean, lanean, eskolan... Eguzkiak ere berea egiten du, noski, eta giroa berotzearekin batera arropa erantzi eta agerian geratzen dira neguan, arropa azpian hain ondo gordetako txitxiak! Orduan bai, gorputzean itsatsita dugun izate arrotz hori gainera kendu nahi dugu bai ala bai. Horrela betetzen da kiroldegia eta dietak egiteko garaian sartzen gara bete betean. Horren adibide, argaltzeko lagun-garriak diren belar eta produktuen kontsumoaren gorakada. Krisiak-krisi, berdin zaigu dirua produktu hauetan gastatzea norbere burua ondo eta dotore ikusteko, gastatu baino inbertitzea delako diru horrekin egiten dena.

Dietak zenbaiten buruhauste izango dira, baina udaberriaren ere badira beste protagonista batzuk, itzalean izaten direnak negu guztian; alergiak. Hauek erasokorrek dira, gerri aldeko txitxiak ez bezala, eta lur jota uzten gaituzte. Horregatik alergiaren eragina leuntzeko asmotan, jendeak erremedioak bilatzen ditu, medikazioa hartu baino nahiago izaten du jalea edota bestelako senda belarrak kontsumitzea adituek gomendatu moduan. Gainera, urtaro aldaketa ona da organismoa garbitzeko ere, barazki eta fruituetan oinarritutako dieta egin eta indarrak hartzeko. Honekin batera goibel sentitzea ere ba omen da udaberriaren ondorio. Kontra ditugun kilo, alergia eta tristura horiei irribarre batekin aurre egitea onena. Udara iristeko atzerako kontaketa hasi da...

## Hitz eta pitz

## Alergiarik izaten al duzu Udaberriari?



**Ana Linde**

Gramineei alergia diet, mimosa arbolari. Ito egiten naiz, eztula jartzen zait, negarra begietan,... oso gaizki pasatzen dut. Botika hartu behar izaten dut, bestela ezingo nuke, otsaila edo martxoan hasi eta hilabete edo hilabeterdi ondoren kitto. Alergiarekin jaio eta hiltzen ginela uste nuen, baina niri 35 urterekin heldu zitzaidan. Medikua ohartu zen arte katarroa zela uste genuen.



**Laura Munduate**

Alergia arazorik ez dut sekula izan, beste arazo edo gaixotasun asko bai, bihotzekoa, tronbosia,... baina alergiarik ez. Bilobek, bai, bik hautsari alergia diote, eta etxeko alfonbra denak kendu behar izan ditugu. Jada sendatu dira, sendagilearekin ibili dira, tratamendu bat egin dute ospitalean. Ni ondo nago, datorren hilaren 17an 90 urte beteko ditut.



**Jon Pagola**

Nik arazo denak batera ditudala uste dut: bronkoneumonia, alergia, asma,... eta oso txikitatik gainera. Asko nabaritzen dut, arnasa, oso gutxi, juxtu juxtu hartzen dut, neke, eztul oso handia,... eta hori dena gultzurrunera joan zait. Min handia izaten dut hor, izugarria. Alergia diot hautsari eta polenari, gainera asmatikoa naiz, beraz denak daukat. Garai hau izaten da gogorrena.



**Eneko Oroz**

Alergia arazorik ez daukat, ez dut sekula horrelako ezer nabaritu. Uste dut anaiak izan zuela txikitat arazoren bat, baina ez naiz oroitzen zer zen eta orain jada ez dut uste ezer daukanik. Entzuten da jendeak, garai honetan, udaberriari, alergia izaten duela baina nik ez daukat inolako erreferentziarik, ez dut alergia izaten duen inor ezagutzen.

## Iruditan



Lasarte-Oriako lagun koadrila hipodromoan. F.Galardi.

## Eguraldi onak kalera ateratzen zituen herritarrak

Eguzkia ateratzearekin batera, gure asteko adituak diosen moduan, alaiago sentitzen gara, arropa gutxiago jantzi eta kalera ateratzeko gogo gehiago izaten dugu. Hau horrela da egun eta hala izan da beti. Horregatik adibide modura ekarri nahi izan dugu gaurko irudia. 40. hamarkadako da eta bertan agertzen zaigu lasarteoriatar neska koadrila bat. Eguneko lanak utzita, hipodromoko zelaian agertzen zaizkigu dotore-dotore jantzita. Irribarretsu dago laukotea, lore artean asko nabaritzen ez bada ere, egun eguzkitsu ederra lagun dutela.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**

## UDALA

# Askatasun parkearen zaintza eza dela eta azalpenak

Udalbatzarrean Zabaletako aldaparen berurbanizatzea mintzagai

**Azken astean Askatasun parketik igaro diren herritarrek bertan hainbat kalte edo belarra zaindu gabe zegoela ohartuko ziren. Hauen harira, Udal gobernua oharra helarazi die komunikabideei azalpenak emateko.**

Lasarte-Oriako Udal gobernu taldeak azalpenak eman ditu Askatasunaren parkearen egoeraren inguruan. Udal taldeak helearazi duen oharrean azaltzen duenez, Lasarte-Oriako Udalak eraikuntza enpresari parkea irekitzeko eskatu zion, "ez baitzuen zentzurik parkea zegoen moduan egon eta gaur arte itxita egoteak".

Hilabete hauetan, Udal gobernu taldeak ohartarazten duen bezala, belarrak hazi eta bertako harriak parke guztian zehar sakabanatuak bukatu dute. "Hau ikusita, Udalak harri hauek kentzeko eskatu zion eraikuntza enpresari".

Izan ere, oharrean azpimarratzen den bezala, parkea eraikitzeaz arduratu den enpresa orubearen jabea da eta obra guztiak amaitzean udalak jasoko du. "Parkea txukuntzeaz, lan guztiak bukatu eta behar bezala Udalarari entregatzeaz arduratu behar dena eraikuntza enpresada," adierazten dute.

Hala eta guztiz ere, garbi-



Askatasun parketik igaroz gero, belarra zaindu gabe dagoela ikusi daiteke.

keta mantenua egin duena Lasarte-Oriako Udala izan dela jakitera ematen dute.

Honetaz gain, parkearen erdigunean egurrezko ohol batzuk ere hautsita daudela ohartu da Udal gobernu taldea eta oharrean azaltzen duenez, "garbiketa enpresak eragin zuen garbitzeko makina sartzen saiatu zenean eta beraiek konponduko dute ahal bezain azkarren".

## Udalbatzarra

Bestalde, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak ohiko bilkura egingo du bihar arratsaldeko, 18:30ean.

Eztabaidara eramango diren gaien artean, PSE-EEK Zabaletako aldapa berurbanizatzeiko aurkeztutako mozioa izango litzateke.

Baina Bilduk jakin arazi duenez, mozio honen zuzenketa aurkeztu du.

Emendakina azaltzen denez, auzoz auzoko bilertako proposamen artean Zabaleta aldapako konponetzea dago eta "udal honek garrantzia eman nahi dio bilera hauetan sortutako puntu eta ideia guztiei, tartean Zabaletako aldapako berurbanizatzeari".

Honetaz gain, biharko gai zerrendan likidazio eta kreditu aldaketak bideratzeko dossierren berri ematea, Bilduk Bateragune auziari buruz aurkeztu duen mozioa eta EAJ-k egin duen zuzenketa, Bilduk Udal Euskaltegien aferarekin zer ikusia duen mozioa eta galdera eta erreguak izango dira.

## UDALTZAINAK

## Lasarte-Oriako lapurreta ugari

Lasarte-Oriako Udaltzaingoa jakin arazten du azken asteetan hainbat lapurreta izan direla gure herrian.

Arranbide eta Kotxeras auzoetan, esate baterako, 8 kotxe lapurtu zituzten lehengo astean eta hainbat tabernatan ere sartu dira lapurrak.

Honetaz gain, herriko pertsona adinduei bereziki ohartarazi nahi diete lapurreta arriskuak. Izan ere, ostegunean, Udaletxeko langileak zirela esanaz, bikote batek herritar baten etxebizitzan sartu eta lapurreta egin zuten. Jakin arazi digitenez, bikote gaztea zen, 30 urte ingurukoa eta ongi jantziak zihoazten.

Gauzak honela, udaltzainek etxera joatean adi egoteko eta edozeini ez irekitzeko eskaria egiten diete. Gainera, pentsioa hartzea joatean ere kontuz ibiltzeko deia egin dute, gisa honek ezbeharrak sahiesteko asmoz.

## IKASTAROA

## Janari-manipulatuak ikastaroa

Elkolab. S. Coop. enpresak Lasarte-Oriako udalarekin elkarlanean, janari-manipulatuak arrisku handiko ikastaro berri bat eskainiko du. Ikastaroa ostalaritza sektoreari zuzenduta dago eta Osasun Sailak eskatzen duen auto-kontrolaren inguruko edukiak ditu.

Ikastaroa apirilaren 23an izango da Anbulatorioko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko aretoan 16:00etik 20:00era. Ikastaroaren prezioa 45 eurokoa izango da eta langabetuek prezio berezia izango dute, 35 euro. Informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko 943361605 edo 943533303 zenbakietara dei daiteke.

## AISIA

## Begirale izateko izena ematea zabalik

Udako txokoetan begirale bezala aritzeko izena ematea zabalik da. Bete beharreko baldintzak izango dira euskaraz ondo komunikatzea, 18 urteak beteta izatea eta ondo pasatzeko prest egotea.

Udako txokoak uztaila eta abuztuan izango dira goizez. Gehienek 10:00etatik 13:00etara egingo dute lan baina Goitzoko zerbitzuan aritzen diren begiraleen orduetgia 9:00etatik 13:00etara izango da. Udako kanpaldietan aritzea zailagoa da begirale gutxiago behar izaten delako hala ere, hauetan egoteko interesa dutenek ere izena emateko.

Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 10a izango da eta lehenbailehen Ttakunetik pasatzea gomendatzen da. Aukeraketa prozesua elkarriketa bidez egingo da. Argibide gehiago nahi dutenek 943 371 448 zenbakira dei dezakete.

## SAN PEDRO JAIK

## Haur danborradan izena ematea

San Pedro Jaietako egitaraua prestatzen ari da Udala eta ekitzen barruan, urtero legez, haurren danborrada dago. Honetan 5 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek parte hartu ahal dute.

Izena ematea gaur irekitzen da eta maiatzaren 4ean amaituko da. Informazio gehiago edo parte hartu nahi duten guztiek Gazteentzako informazio bulegoara, Manuel Lekuonako 3. solairura, goizez, nahiz arratsaldean hurbildu daitezke.

Plazen zozketa maiatzaren 10ean egingo da eta emaitza maiatzaren 14ean emango da jakitera kultur-etxeko iragarki taulan.

## OINATZ TALDEA

## Lasarte-Oriako mugetatik ibilbidea

Oinatz taldeak Lasarte-Oriako mugak, herriko bitxikeriak eta aspaldiko kontuak ezagutzeko aukera eskainiko die herritarrei apirilaren 21ean, larunbata.

Goizeko 9:00etan Jalgitik atera eta bi ibilbide desberdin egiteko aukera izango da, bat mendi gainetatik eta bestea erosogoa, nahi duten guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.

Gainera, nahi dutenek, Ikatz Mendi jatetxean bazkaltzeko aukera izango dute. 13 euro balio du menuak. Haurrentzat krocketak, makarroiak eta postrea izango dira eta helduentzat entsalada, saiheskia eta etxeko postrea. Ibilaldian parte hartzeko eta bazkarira joateko asmoa dutenek Ttakunen eman beharko dute izena apirilaren 18a baino lehen.

## Doluminak Telleria familiari

Apirilaren 7an, Zabaleta Auzoko Pepene baserrian Jose Antonio Telleriaren gorpua topatu zuten buruan tiroa zuela.

Heriotza dela eta, Udalak prentsaurrekoa eskaini zuen asteazkenean atsekabea agertu eta familiari doluminak emateko.

Pablo Barrio alkateak Bozeramaileen batzarrean adostutako testua aurkeztu du. Honetan, Lasarte-Oriako Udalaren izenean, "Jose Antonio Telleria jaunaren boronbata heriotza eragin duten gertaera tamalgarrien aurrean" bere samin eta atsekabe sakona agertu du alkatetean. Izan ere, hildakoa

Udaleko langile izandakoa zela gogoratu baitu.

Era berean, familiari Udalarren dolumina helarazi nahi izan dio, "une latz hauetan haien atsekabea konpartitu eta gure babesa eskainiz".

## Gertaerak

Jose Antonio Telleriaren gorpua aurkitu zuen Pepene baserriko morroiak larunbata goizean eta larrialdietara deitu zuen.

Ertzainak ikerketarako frogak bilatzen ari zirela, baserriaren aldamenean auto bat aurkitu zuten, erreta.

Hilketaren harira bi gizon atxilotu zituzten asteburuan. J. Telleria 24 urteko gaztea,

hildakoaren iloba eta Telleriaren etxean bizi zen 50 urteko morroia.

Astehenean kargurik gabe libre utzi zuten morroia. Hilketarekin zerikusirik ez duela zehaztu baitzuen Ertzaintzak. Ilobak atxilotuta jarraitu zuen Poliziak hiltzailea zelaren susmoa baitzuen.

Ilobak deklaratu ondoren, asteartean Ori ibaian topatu zuten uestez hilketan erabilitako arma.

Asteazkenean epailearen aurrera eraman zuten, atxilotu 48 orduz luzatzea erabaki ondoren.

Ostegunean Martuteneko espetxera eraman zuten uesteko hiltzailea.

Xabier Urruzola eta Garazi Del Rey

# Urruzola: Lasarteoritarrek Alkizan egindako Getariako txakolina

- Aurtun jarri dituzte Inazio Urruzola markako lehenengo botiliak salgai merkatuan
- Duela hiru urte landatu zituzten lehenengo mahatsondoak Garaikoetxea baserrian
- Maiatzean beste hektarea bat prestatu eta osatu dituzte baimendutako hiru hektareak

Xabier Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak Inazio Urruzola markako lehen txakolin botiliak merkatuaratu ditu aurtun. Duela hiru urte jatorrizko izendapena ofiziala lortu, Xabierren aitak zeneren jaiotetxea den Garaikoetxea baserriko lurretan lehen mahatsondoak landatu, iaiz lehen uztia jaso, udazkenean txakolina egiten eta aurtun probatu ahal izan da Alkizan egiten den lehen txakolina. Bikoteak bi eranka ditu orain, bata beraren alaire eta bodega erakitzea, eta bestea Tolosaldean zabaltzea, hau da, Alkizan egindako txakolina edan dadila bailara honetan.



### Jon ALTONA IVA

Getariako txakolina ez da kostaldean baka-trik egiten, 1989tik dauka izendapena ofiziala, orduan eman zuten Getariako txakolinari jatorrizko deitura, eta gero, 2007an Gipuzkoa osora zabaldu zen izan da. Hiri mutur bati dagutenez, "prozesua aberatsa heldu eta triskala garu arte. Oso poltsa, baina jagoira eta oso garestia ere bai; inbentario handia eskatzen du, eskubideak erosi behar dira, Foru Aldundian lehitatu..."

Horretarako "hainbeste adiskideteren laguntza izan behar du. Bikoteak berak jakinaraztu dionez, "getriko lagun baten bidez, Oihaniko txakolina salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Senale bat bezalako izan zen. New York-etik bueltan hasi ginen informazioa bil-tzen eta ingunua mareatzen". 2008 bukatu zen eta handik gutxira marban zen Alkizan txakolina egiteko proiektua. Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk kontatu izan da. Hiri mutur bati dagutenez, "prozesua aberatsa heldu eta triskala garu arte. Oso poltsa, baina jagoira eta oso garestia ere bai; inbentario handia eskatzen du, eskubideak erosi behar dira, Foru Aldundian lehitatu..."

Horretarako "hainbeste adiskideteren laguntza izan behar du. Bikoteak berak jakinaraztu dionez, "getriko lagun baten bidez, Oihaniko txakolina salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Azten hiru urteotan makina bat lan egin eta hainbat jazerdi bota ondoren, aurtun izan da saria. Garaikoetxea-ko salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.



Lasarte-Oria | Jaki tabernan dastatu dute Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk. Alkizako baserrian egin dute "Getariako" txakolina.

Gaztea eta nekazaritza izatea oihikoa ez denez, gazteek nekazaritza esploratzeke jatzeko garairan arkuendietatik bukitzea ematen ari dira. Alkizako Getariako txakolina proiektuaren barruan egotea ezinbesteko baldintza izan zen baitemak eskuratzeko orduan".

### Lehen botiliak

Behin baimena lortuta, duela hiru urte bi hektarea mahatsi banatuta, eta orain beste hektarea bat prestatzen ari dira. Lehenengo futuak iaz, udazkenean, eman dituzte mahatsiek, eta geroa beratan upategia erakitzeke asmatu dute, baina bien bitartean Getariako Ameztoi txakolinaren jatorrizko izendapena ofiziala lortu, Xabierren aitak zeneren jaiotetxea den Garaikoetxea baserriko lurretan lehen mahatsondoak landatu, iaiz lehen uztia jaso, udazkenean txakolina egiten eta aurtun probatu ahal izan da Alkizan egiten den lehen txakolina.

Getariako txakolina proiektua, Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk kontatu izan da. Hiri mutur bati dagutenez, "prozesua aberatsa heldu eta triskala garu arte. Oso poltsa, baina jagoira eta oso garestia ere bai; inbentario handia eskatzen du, eskubideak erosi behar dira, Foru Aldundian lehitatu..."

Horretarako "hainbeste adiskideteren laguntza izan behar du. Bikoteak berak jakinaraztu dionez, "getriko lagun baten bidez, Oihaniko txakolina salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Azten hiru urteotan makina bat lan egin eta hainbat jazerdi bota ondoren, aurtun izan da saria. Garaikoetxea-ko salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Uztia ona, ardo ona Txakolinak jendearen artean harrera ona izan duela adierazten du. Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk. Aurtun bukatu da "Getariako" txakolina deli, "nekazaritza" abiatutako proiektuak beti izan dituzte familiaritateko lotura estu bai. Egunero gurean "ikusten ez diren bakoarek ezaleratzen dira, hor, adiskide eta familiaritatearen bidez, lehenetsuta hartzen dute. Lagunak lagun direla erakusteko aukera izan dute".



Garazi Del Rey eta Xabier Urruzola, duela hiru urte landatu zituzten lehen mahatsondoak Alkizako Garaikoetxea baserriko lur-sailean. Aurtun probatu dute "bekele" txakolina.

Tolosa aldeko gutziarik irailen den artean jaso eta ospea lortu duen gipuzko txakolina proiektua, Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk kontatu izan da. Hiri mutur bati dagutenez, "prozesua aberatsa heldu eta triskala garu arte. Oso poltsa, baina jagoira eta oso garestia ere bai; inbentario handia eskatzen du, eskubideak erosi behar dira, Foru Aldundian lehitatu..."

Horretarako "hainbeste adiskideteren laguntza izan behar du. Bikoteak berak jakinaraztu dionez, "getriko lagun baten bidez, Oihaniko txakolina salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Azten hiru urteotan makina bat lan egin eta hainbat jazerdi bota ondoren, aurtun izan da saria. Garaikoetxea-ko salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Uztia ona, ardo ona Txakolinak jendearen artean harrera ona izan duela adierazten du. Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk. Aurtun bukatu da "Getariako" txakolina deli, "nekazaritza" abiatutako proiektuak beti izan dituzte familiaritateko lotura estu bai. Egunero gurean "ikusten ez diren bakoarek ezaleratzen dira, hor, adiskide eta familiaritatearen bidez, lehenetsuta hartzen dute. Lagunak lagun direla erakusteko aukera izan dute".

Alkiza bezalako herri txiki batean mahastien landaketak oihartzun handia izan du, eta bertako herritarren artean interes berezia piztu. Barnealdean ekoizten den txakolin honek hasieran harridura sortu badu ere, dagoeneko ezagutzera ematen ari da eta lehen botilik harrera ezin hobea izan dute Tolosaldean

gero beste ehuneko 20a lortu izan da txakolinaren landaketan. Urtetik aurrera, Alkizako txakolinaren proiektua, Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk kontatu izan da. Hiri mutur bati dagutenez, "prozesua aberatsa heldu eta triskala garu arte. Oso poltsa, baina jagoira eta oso garestia ere bai; inbentario handia eskatzen du, eskubideak erosi behar dira, Foru Aldundian lehitatu..."

Horretarako "hainbeste adiskideteren laguntza izan behar du. Bikoteak berak jakinaraztu dionez, "getriko lagun baten bidez, Oihaniko txakolina salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Azten hiru urteotan makina bat lan egin eta hainbat jazerdi bota ondoren, aurtun izan da saria. Garaikoetxea-ko salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Uztia ona, ardo ona Txakolinak jendearen artean harrera ona izan duela adierazten du. Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk. Aurtun bukatu da "Getariako" txakolina deli, "nekazaritza" abiatutako proiektuak beti izan dituzte familiaritateko lotura estu bai. Egunero gurean "ikusten ez diren bakoarek ezaleratzen dira, hor, adiskide eta familiaritatearen bidez, lehenetsuta hartzen dute. Lagunak lagun direla erakusteko aukera izan dute".



# ANIZIAK

## J A N T Z I - D E N D A

**ERRETIRATZEGATIK LIKIDAZIOA !**

**Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386**

alokatea, traktorea erostea, landareak eta hauen tratamendua. Urtetik aurrera, Alkizako txakolinaren proiektua, Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk kontatu izan da. Hiri mutur bati dagutenez, "prozesua aberatsa heldu eta triskala garu arte. Oso poltsa, baina jagoira eta oso garestia ere bai; inbentario handia eskatzen du, eskubideak erosi behar dira, Foru Aldundian lehitatu..."

Horretarako "hainbeste adiskideteren laguntza izan behar du. Bikoteak berak jakinaraztu dionez, "getriko lagun baten bidez, Oihaniko txakolina salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Azten hiru urteotan makina bat lan egin eta hainbat jazerdi bota ondoren, aurtun izan da saria. Garaikoetxea-ko salgaraitako mahatsarekin egindako txakolina dastatu ahal izan dute. Iazko udazkenean egin eta botilatu zuten Inazio Urruzola eta Garazi Del Rey bikoteak.

Uztia ona, ardo ona Txakolinak jendearen artean harrera ona izan duela adierazten du. Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk. Aurtun bukatu da "Getariako" txakolina deli, "nekazaritza" abiatutako proiektuak beti izan dituzte familiaritateko lotura estu bai. Egunero gurean "ikusten ez diren bakoarek ezaleratzen dira, hor, adiskide eta familiaritatearen bidez, lehenetsuta hartzen dute. Lagunak lagun direla erakusteko aukera izan dute".

Alkizan, "Alkiza bezalako herri txiki batean mahastien landaketak oihartzun handia izan du, eta bertako herritarren artean interes berezia piztu. Barnealdean ekoizten den txakolin honek hasieran harridura sortu badu ere, dagoeneko ezagutzera ematen ari da eta lehen botilik harrera ezin hobea izan dute Tolosaldean".

Geratia Txakolina ekoizteak kostu handia du, garestia da. Foru Aldunditik laguntza txiki batzuk badituzte, baina inbertsio handiak egin behar dira: lurrak prestatzeko makinak

Nafarroa eta Erikoatik ekartzen dituzte landareak, "Hondarribi" zuri" mahatsak erabiltzen dituzte derriogorri, jatorrizko izendapena izateko ehuneko 80 mola horretarako behar duelako, eta

Uztia ona, ardo ona Txakolinak jendearen artean harrera ona izan duela adierazten du. Xabier Urruzola eta Garazi Del Reyk. Aurtun bukatu da "Getariako" txakolina deli, "nekazaritza" abiatutako proiektuak beti izan dituzte familiaritateko lotura estu bai. Egunero gurean "ikusten ez diren bakoarek ezaleratzen dira, hor, adiskide eta familiaritatearen bidez, lehenetsuta hartzen dute. Lagunak lagun direla erakusteko aukera izan dute".

## PIRAGUISMOA.-

# Maialen Chourraut Londreserako bidean

Lasarte-Oriako gaztea Espainiako selekzioko Paueko hautaketa prozesuan nagusi izan zen

**Lasarte-Oriako palista gazteak bere bigarren joko olimpikoetarako txartela lortu zuen Pauen egin ziren aukeraketa saioetan. Emakumezkoen K-1 mailako jaitsieretan nagusi izan zen eta honela Londreseko Joko Olimpikoetarako sailkapena lortu zuen.**

**M**aialen Chourraut lasarteoriatarak, berririo ere, Joko olimpiko batzuetan izango da. Herriko palista Espainiako selekzioak apirilaren 3tik 7ra Pauen egin zituen hautaketa probetan nagusi izan zen K-1 mailan. Lau jaitsiera izan ziren egin beharrekoak eta guztietan, akatsak medio, azkarrena izan zen Chourraut.

## Indarra eta probak

Maialenek irailen Munduko txapelketan brontzea lortu eta gero, plaza olimpikoa lortu zuen Estatuko selekzioarentzat baina ez zen nominatiboa. Gainera, estatu bakoitzetik modalitate bakoitzeko ordezkari bat sailkatu ahal da Joko Olimpikoetarako.

Herriko palistak komunikabideei adierazi zenez, "ez nintzen lasai etorri probetara.

Asko nuen galtzeko eta aurkariak nire plaza nahi zuten".

K-1 mailako lehiaketa bi jardunaldietan zatitu zen, apirilaren 4 eta 5ean.

Lasarte-Oriako gazteak bere blogean adierazten duen bezala, "lehenengo jaitsieran indarra falta izan zitzaidan. Baina bigarrenean, berriz, lehenengo jaitsieraren moteltasuna zela eta, kemena bildu eta saio azkarra egin nuen".

Bi jaitsiera hauetan azkarrena izan zen Chourraut eta bi 0 lortu zituen.

Era honetara, Londreseko txartela eskuratzeko hurrengo jardunaldian jaitsiera bakarra irabaztearekin nahiko zuen. Eta ez zuen hutsik egin.

Lehenengo saioan nahiz eta jaitsiera motela eta garbia egin, azkarrena izan zen.

Bigarren jaitsieran, berriz, intentsitatea handitu eta



Maialen Chourraut herritarak Londreseko Joko Olimpikoetako txartela lortu zuen Paueko hautaketa probetan.

MAIALEN CHOURRAUT

proba batzuk egin zituen ibilbideko azken atean, atzerako norantzan hartu beharrean aurrera hartzen saiatu zen. Bi ate ukitu zituen, hala eta guztiz ere, proba irabaztea lortu zuen.

Gauzak honela, Pauen egin diren saioetan Maialenek K-1 mailan duen trebezia erakutsi eta uztailaren amaieran nazioarteko palista hobere

niak lehiatuko da Lee Valley White Water Centre-eko kanalean.

## Espainiako kopa

Orain prestakuntza lanetan jarraitu behar du Londreseko Joko Olimpikoetan fin egoteko.

Horregatik, asteburu honetan, La Seu D'Urgellen izango da Slalom Olinpikoko Espai-

niako II. Kopako bigarren saioan.

Txapelketa honetan lehenengo postuan da Maialen. Izan ere, martxoan Bidasoa ibaian egin zen lehenengo proban irabazle izan baitzen.

Txapelketa honetan hiru probari egin behar zaie aurre eta onenak abuztuan Lleidan izango den Espainiako txapelketan lehiatuko dira.

## IGERIKETA.-

## Buruntzaldea IKT-ko igerilariak bikain

**B**uruntzaldea IKT-ko Itsaso Tolosa martxoko azken astean Open txapelketan izan zen Malagan eta taldeko txikiak, berriz, Ligako laugarren jardunaldia izan zuten.

Itsaso Tolosa 200 bizkar proban parte hartu zuen Opean eta 26. postuan amaitu zuen. Hala ere, Borja Apeztegia entrenatzaileak azpimarratzen duenez, "bertan ikusitako markek, Itsaso denborarekin maila handian ibili daitekeela erakutsi zigen".

### Txikien Liga

Bestalde, Ligako 4. jardunaldia izan zuten taldeko txikiak Hernanin. Hauek nahiz eta esizientzia handiko probak izan, "lan bikaina egin zuten".

Txikienek, 2003 eta 2002 urteetan jaiotakoek 25 m. eta 50 m. tximeleta probak eta 6x25 m. bular erreleboa egin zuten.



Buruntzaldea IKT-ko gazteak ederki egin zuten lan Ligako jardunaldian. BURUNTZALDEA IKT

Azken proba honetan aurkeztutako bi taldeek bigarren eta hirugarren postua eskuratu zuten.

2001 eta 2000 urtekoen artean, 100 m. estilo proban Nora Irazustak lehenengo, Leire Carcedok bigarren eta Amaia Izagirrek laugarren postua eskuratu zuten.

200 m. libre proban, berriz, Eneritz Buizak bere marka pertsonala hobetu zuen.

400 m. libre proban, Nora Irazustak lehen postua lortu zuen eta Amaia Izagirre eta Leire Carcedo bere atzetik iritsi ziren amaierara. Mutiletan, Beñat Alkorta seigarren eta

Jon Soto zazpigarren izan ziren. Borja Apeztegia entrenatzaileak jakin arazi digunez, proba hau egiten zuten lehen aldia zen.

2000 urteko nesken eta 1999. urteko gaztetxoetan mailan, 200 m. estiloak proban Ainara Garcia bigarren izan zen eta Janire Berasarte hirugarren. Biek haien denborak hobetu.

Bestalde, 400 m. proban, Maialen Casado bigarren, Janire Berasarte 3. eta Ainara Garcia 4. izan ziren.

Eta amaitzeko, 4x50 m. estiloak erreleboa izan zen.

Nesketan bi talde aurkeztu zituen Buruntzaldea IKT-k. Irati Arzallus, Leire Carcedo, Janire Berasarte eta Amaia Izagirrek osatutako erreleboak lehen postua lortu zuen eta bestea deskalifikatua izan zen. Mutiletan, berriz, talde bakarra izan zen lehiari eta 4. postua lortu zuen.

## JUDO.-

## Judokak dominak eta sailkapenak lortzen

LOKEko judokak denboraldi-ko azken txapelketei aurre egin behar diete. Martxoaren 31an bi erronka zituen taldeak, batetik junior mailako Espainiako txapelketako iparraldeko sailkapena eta bestetik Durangoko nazioarteko txapelketa. Eta bietan dominak eskuratu zituzten.

20 urte azpiko Estatuko txapelketako sailkapenean Esteban Martinezek zilarrezko domina eskuratu eta asteburu honetan Madrilen izan da finalean lehiatzen.

Gainera, Gorka Aristegui entrenatzaileak aipatu digunez, Mario Garrido "lesionatuta iritsi zen eta ez zuen lortu sailkatzea" eta Josu Olmosek "ez zuen bere mailarik onena eman eta ez zen sailkatu".

Bestalde, Durangoko txapelketan kadeteak izan ziren lehiari eta Oscar Garridok bere mailako garaikurra eraman zuen; Fermin Baldak, berriz, brontzezko domina.

## Agenda

Ostirala 20, 23:00etan, Jalgi Kafe-antzokia



### “Bi pauso” diskaren aurkezpena

Bluestock taldeak bere lehen diska den “Bi pauso”-ren aurkezpena egingo du. Diska Xabier Laskibar Tximas-en laguntzarekin grabatu dute. Zarautzko boskotaren estreinako lan hau zuzeneko kontzertuen isla izateko helburuarekin osatu dute. Euskarazko abesti propioak eta ingelesezko klasikoak bertsoak uzartu dituzte. Honela, taldeak blues, R&B eta rock doinuak ekarriko ditu gure herrira.

## Bestelakoa

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Astearte 17, 19:30etan**

Kukuka antzerki eta dantza eskolako X. urteurrena dela eta, Julia Marinek antzerkiko klase ireki bat eskainiko du.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Asteazkena 18, 19:00etan**

Parte-hartze sailak, auzoz auzoko bileren diagnostia aurkeztuko du.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Astelehena 23, 16:30etan**

Liburuaren eguna dela eta, EPAko ikasleek irakurketak egingo dituzte.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Asteazkena 25, 19:00etan**

Kukuka antzerki eta dantza eskolako X. urteurrena dela eta, Kukai dantza taldeak entsegu irekia egingo du.

## Lasarte-Oria

### Zinema

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Igandea 22, 17:00etan**

Haurrentzako zinea atalean, “Viaje al centro de la tierra 2” filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera 3,40 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Osteguna 26, 21:30etan**

Okendo zinema taldearen eskutik, Oscar saria lortu zuen “Nader y Simin, una separación” film iraniarra eskainiko da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

## Antzerkia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Larunbata 21, 18:00etan**

Markeliñe taldeak “Hareazko ipuinak” haurrentzako antzerkia eskainiko du. Euskaraz. Sarrera online, 3 euro.



**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 27, 22:00etan**

Danok Kide elkartearen 50. urteurrena dela eta, Donostiako Teatro Estudiodik

“El chico de la última fila” antzerkia eskainiko du. Gastelaniaz. Doan.

## Musika

**ABEND KAFE-ANTZOKIA**  
**Ostirala 20, 23:45ean**

“Rise to Fall” eta “Lion Head” taldeen metal kontzertua izango da. Sarrerak aurrez 10 euro eta egunean, 12 euro.

## Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
**Apirilean zehar**

Inhar Mutiozabalek “Ez da Maharajarik geratzen” argazkien erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude, zerbitzariari galdetu.

## Andoain

### Erakusketa

**BASTERO KULTUR GUNEA**  
**Maiatzaren 5a arte**

Targakia elkartearen “Baserritik Zerkaurira” argazki erakusketa ikusgai dago.

## Hernani

### Musika

**SAN JOAN BATAIATZAILEAREN PARROKIA**  
**Ostirala 20, 19:30etan**

Hernani'n Musik-en barruan organo eta biolin kontzertua eskainiko dute Ana Belen Garcia eta Monica Redondok.

## Herritarren txokoa

### Gernika-Lumo eta Bilbora irteera

Biyak-Bat erretiratuen elkarteak irteera antolatuko du apirilaren 30ean, Gernika-Lumo eta Bilbora.

Honetan, bakoitzaren gustuaren arabera, Gernikako batzar-etxea Santa Maria eliza, Bakearen museoa edo azoka bisitatu ahalgo dira. Bazkaria “Lur Gatika” jatetxean izango da. Arratsaldean, Bilbon izango dira.

Elkarteko bazkideentzako 34 euro da eta bazkideak ez direnek, 38 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea, asteazkenean, apirilaren 18an, goizeko 10:30ean irekiko da.

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, bizikleta bat, urrezko pultsera, eraztan bat, neskaren eskumuturreko bat, betaurreko graduatuak eta urrezko belarritako bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona gutziet eska-

tzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Jesuitinas ikastetxeko ikasle ohien bazkaria

Jesuitinas ikastetxeko ikasle ohien bazkaria antolatuko da, apirilaren 21ean, 14:00etan, Dakara jatetxean. 1960. eta 1961. urteetan jaiotako ikasleen bilera da.

Bazkarira joan nahi dutenek 18 euro sartu behar dituzte Kutzako kontu korronte zenbaki honetan, 2101-0092-13-0105552145. Bakoitzaren izena adierazi behar da.

### Gasolina merkeago Aterpeako txartelarekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordaintzeko egiteko garaian, %2ko beherapena izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak.

Aterpea Merkataritza elkarteak martxan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du helburu nagusia.

## Eskutitza

### Aurrera egin beharra dago

Duela egun batzuk berri oso txar bat jaso genuen. Auzitegi Konstituzionalak 197/2006 doktrinaren aplikazioa ia bere horretan uztearekin kartzelan urte gehien daramagun dozenaka euskal preso politikoi kartzelaldia are gehiago luzatzen zigun, nahiz eta bake prozesuan urrats erabakigarriak emanak diren eta Euskal Herrian gehiengo zabal batek estatuei salbuespeneko politikarekin bukatzeko eskatzen dienean.

Erabaki honek, gehientsuenoi, uste-kabeen harrapatu gaitu, are gehiago azken hilabeteetan medioetako filtrazioek bestelako erabakia hartuko zutela pentsarazten zutenean. Kolpe latza izan da eta min handia eragin digu, ezin bestela izan, baina eutsiko diogu orain arte eutsi diogun bezala.

Badakigu gurean aparatuzko judiziala batez ere mendekuen, baina baita kalkuluzko politikoa oinarritzen dela, politikariak ere euren asmoz diximulurik gabe agertzen dute ezker abertzaleak bere proiektuari (“totalitarioa” deitzen diote, batere lotsarik gabe) uko egin behar diola esanez, euren burua demokratizatzen duten bitartean.

Tradizioari jarraitzen diote, elite espainolaren ezaugarri nagusia zapaltzailea izatea da, klase pribilegiatu baten interesak zaindu eta gurea bezalako herri batean inposaketa aplikatu, berdin dio eskumatarrik izan edo ezker izenekoak, gurekin estatu arrazoia da nagusi eta bidegabekeria normalizatzen hartzen dute.

Injustizia gauzatu da berriro ere euskal preso politikookin, injustiziaz ukatzen dute euskal nazioaren izaera, injustiziaz ukatzen dute autodeterminazioa, baina Espainian horretarako zilegatasuna lortu badute ere, Hego Euskal Herrian gehiengo batek ez die zilegatasunik aitortzen, eta hori gabe zaila dute errepresioa eta inposaketa denboran luzerako mantentzea. Esan behar da, hala ere, posizio politiko espainolaren higadura ez dela berez etorriko, euskal gizartearen implikazioetik eta lan antolatutik baizik, gora begira geratzeak ez baitu ezer onik ekarriko.

**Txurdi Rezabal**  
**Euskal preso politikoa**

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 9 443 366858 txintxarri@txintxarri.info

# Parte-hartze positiboa auzoz auzokoan

▶ Apirilaren 18an, 19:00etan, herriko diagnostikoaren aurkezpena egingo da Manuel Lekuonan

Parte-hartze sailak, auzoz auzoko bilerak amaituta, herriko arazoaren diagnostia aurkeztu zioten prentsari ostiralean. Herri-tarrek ere parte-hartze prozesu honen emaitzen berri izango dute, asteazkenean, 19:00etan, Manuel Lekuonan egingo den aurkezpenean.

Nerea EIZAGIRRE

Auzoz auzoko bileren 2. fasea bukatuta balorazioa egin zuten ostiralean Parte-hartze saileko batzorde buruak, Alaitz Mendizabal eta Larraitz Sarobe teknikariak.

Alaitz Mendizabalek azaldu zuenez, "positibotzat jotzen dugu lehenengo aldiz martxan jarri dugun parte-hartze prozesu hau".

Parte-hartze saileko arduradunak eskainitako datuen arabera, bi faseetan 312 pertsona hurbildu dira bileretara. Beraz, "erantzun ona izan du".

Pozik agertu zen, "herriko beharren diagnostia egitea lortu dugulako" eta orain zehaztutako lehentasunekin lanean hasiko direla aipatu zuen.

Gainera, prozesu honek

Udala gertuago sentiarazteko balio izan duela azpimarratu zuen.

## Proposamenak

Larraitz Sarobe teknikariak azaldu zuenez, egin diren bileretan somatutako gabeziak eremuetan banatu ditu Udalak. Honela, %40 Ongizateri dagozkio, %35 hirigintzari, %10 partaidetzari, %8 kulturari eta %7 ekonomiari.

Honela, guztira 290 bat proposamen bildu dituzte eta bigarren fase honetan lehentasunak ezarri dituzte. Eta agerraldian azaldu zuten auzo guztiak arazo komunak lehenetsi dituzte: auzoko garbiketa, Hiribusaren zerbitzua, Txakur kaken arazoa, aterpea duen plaza edo leku bat egitea, aparkamendu gabezia, Udaltzainen aldetik kontrol gehiago, N-1 errepideko soinu



Parte-hartze saileko arduradun eta teknikariak eskaini zuten balorazioa.

pantailen luzapena, Ospitaleetako autobusak herrian zehar geltokiak izatea eta bajuetako egoerak erregulaztea, pintadak, soinuak...

## Prozesua

Prentsaurrekoan jakin arazi zuten, Udalaren kompetentzia diren proposamenek bi bide jarraituko dituzte.

Batetik Udalak epe motzean erantzuna eman ahal dien arazoak daude.

"Hauen artean auzolana egiten konpondu daitezkeenak".

Eta bestetik lanketa sakona eskatzen duten proposamenak daude.

Hauen kasuan, sail desberdinetako teknikariek landuko dituzte eta herritarrekin batera, aurrera eramango den proiektua zehaztuko da.

Azkenik, udalak kompetentziarik ez dituen proposamenak daude. Hauek konpontzeko Udalak dagokion erakundeari

zuzenduko zaio eskaera ofiziala eginez.

Gainera, hau guztia, herritarrei jakitera emango zaiela azpimarratu zuten.

Asteazkenean, apirilaren 18an 19:00etan diagnostikoaren aurkezpena egingo da Manuel Lekuona kultur-etxean.

Prozesuan parte hartu duten herritarrei posta elektronikoz diagnostia bidaliko zaie, baita hurrengo bileretako deialdiak ere.

Eta bileretan parte hartu ez dutenek ere aukera izango dute diagnostikoa eskuratzeko kultur-etxera hurbildu eta parte-hartze sailan bere posta elektronikoa emanaz.

## Beste ekimenak

Bide batez, hilabete honetan, apirilaren 26an Inauterietako 4. bilera egingo dela gogoratu zuten. Honetan talde bakoitzak bere balorazioa aurkeztuko du.

Era berean, San Pedro jaiak gertu daudenez, egitaraua adosteko maiatzan Festaz Blai!! egitasmoko 5. bilera egingo dela aipatu zuten.

# Arkrupe

Berria!

Errazioak  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Entsaladak



Largoenea 1, behea • 20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 361742